

Harria Herria jantza bertikal ikuskizuna Igorren eta Idoia Areatzan

12. orrialdea

Ruth Linazarentzat Arabako Ingude eta Txinga Eroate txapelak

Herri kirolari lemoztarrak txapel biak bereganatu ebazan, batetik, 90 segundoko denpora tartean 84 kolpe emonda ingudean, eta, bestetik, 14 plaza, $\frac{3}{4}$ eta 6 metro eta 70 zentimetro eginda 25 kiloko txingakaz esku banatan txinga eroaten. **10. orrialdea**



Amaia Aldairen taldea txapeldun Plazandreak Txapelketan

10. orrialdea

Itsaso Bengoetxea izentau dabe Eutanasiaren Berme eta Ebaluazino Batzordeko buru

Hilabete bi pasau dira da-borduko eutanasiaren legea espainiar estaduan indarrean sartu zanetik. Itsaso Bengoetxea Usansoloko ospitaleko zaintza aringarrietako mediku igorretarra izentau dabe EAEko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazino Batzordeko buru. Berak zuzendutako batzordeak ebazten dau pazienteak legea beteten dauan eta prestazino hori jasoteko baldintzak beteten dituan. BEGITUk alkarritzaketea egin deutsa gaiaren gainean eta batzordearen eginkizuna eta prozesua azaldu ditu besteak beste. **5. orrialdea**



Frantziako andrea balada zaharra Arratian



Gure ahozko tradizino harribitxi handienetako bat dakar akordura Alvaro Rabellik: *Frantziako andrea* izeneko olerki narratiboa, Arratiako jentearen ahotan ez hain aspaldi arte bizirik iraun dauana. Zeanuriko Rabellik istorio lazgarri honetan murgiltzeko abagunea emoten deusku. **8. eta 9. orrialdeak**

ARTEA

Zea Mays eta Kantu Kolore egongo dira ekintza kulturaletan

Hilaren 8tik 12ra bitartean elektotxarangeak, musika taldeek eta ikuskizunek girotuko dabe Arteako plazea. Kartelburu nagusia dan Zea Mays-ek hilaren 11n eskainiko dau kontzertua. Bestalde, hilaren 8an eskainiko dau Kantu Kolorek *Ametsen urtebetetzea* ikuskizuna. **7. orrialdea**

IGORRE

Igorreko Bonodendak 3.000 bonu kaleratuko ditu

Igorreko Udalak eta Arratiako Merkatarien Elkartek Igorreko Bonodendaren beste edizino bat martxan jarriko dabela iragarri dabe. Bonuak urri lehenengoaren 6tik urri bigarrenaren 6ra edo amaitu arte egongo dira salgai. **7. orrialdea**

ARRATIA

Artea, Bedia, Lemoa eta Zeanuriko udalek ikastaroen zerrendea plazaratu dabe

Bai heldu, bai haur eta bai nagusiek kirolak, eskulanak eta askotariko tailerrak egiteko aukerea izango dabe Arratian 21-22 ikasturtean: judoa, euskal jantzak, yoga, gimnasia, ingelesa, eskulanak, egur lanketea... Lemoan hilaren 6an eta Bedian 7an ipiniko da martxan izen emotea, Artea eta Zeanurin osteraren izena emoteko epea zabalik dago. Zeanurin urri lehenengoaren 9ra arte luzatuko da, Lemoan 13ra arte, Bedian 17ra arte eta Artean 22ra arte. **6. orrialdea**

CEPA
Galdakao
HHI

IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

•Euskara
•Gaztelania
•Ingelesa/Frantsesa
•DBH titulua
•Informatika
Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea: ekaina osoa eta irailaren 1etik 15era.

www.epagaldakao.com - 94 456 60 98

Elxalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

30 urte
beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseakin.com

Literatura txokoa

NIRE ESKUA ZUREAN

Maitasuna eta gorrotoa alkarre-gaz erakusten dira Mariasun Landa idatzitako kontakizunean.

Protagonistea 15 urte inguruko gaztea da, Xabi. Ama alar-gun geratu zan Xabi semea jaio aurretik. Istripu batean galdu eban bizia aitak, autoak kamioi baten kontra jo ostean.

Aitagaz komunikauko da semea, etxean daukan erretratuari begira.

Amak mutil-laguna topetan dauanean hasiko da gorrotoa sentiduten Xabi. Ez dau onartuko bere amaren ondora heldu dan gizona. Horrek ezin izango dau bere aita ordezkatu.

Horregaitik, hain zuzen be, Xabi etxetik alde egitea ebatziko dau; ez dau gizon hori ikusi gura,

nazkatuta dago.

Anttonek, lagunik handienak, aspaldian basoan abandonau-tako borda bat erakutsiko deu-tso. Borda hori bien artean kon-ponduko dabe eta bertara joatea ebatziko dau, amari ezer esan barik.

Etxetik alde egiteko beha-rrezkoak diranak motxila batean sartu, eta, ezkutuan eta isilean, alde egiten dau.

Gaua lo egin ezinda pasetan dau. Badaki ama arduratuta eta bere bila ibiliko dana. Hortxe amaitzen da kontakizuna.

Liburuaren amaiera irekia da, bakotzak bere erara imajinau leike.

Eguneroko moduan dago an-tolatuta. Idazlearen narrazioa



Mariasun Landa
Nire eskua zurean
Erein argitaletxea, 1995
64 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Abuztuaren 30etik urri lehen. 5era
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Urri lehenengoaren 6tik 12ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Urri lehenengoaren 13tik 19ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. **Telefonoa:** 94 631 73 14 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Iraide Ibarrondo. **Telefonoa:** 94 631 73 14 eta 649 979 112. E-posta: begitu@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefonoa:** 94 631 73 14 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@begitu.eus helbidera.

BEGITU ALDIZKARIA

Urri lehenengoan
atal barria eukiko
dogu tarte honetan!

ERETXIA

Iraultza Txikien
Akanpada
Arteako Basoan



IRAULTZA TXIKIEN
AKANPADA

Amaitu da Iraultza Txikien Akanpadaren bigarren edizinoa, eta antolatzaileok hurrengo balorazinoa plaza-ratu gura dogu:

Pozik gagoz, besteak beste dibertidu egin garelako, parte-hartzaileak dibertidu diran bezala. Zorionekoak sentitzen gara, uda honetan espero ezin geinkean eguraldi eder batek lagundu gaitualako, etorri dan jentearen prestutasun eta jarrera baikorrek lagundu gaituen bezala. Persona guzti horreei gure eskerrik beroenak.

Garai goibelak ekarri deuskuz pandemiak, isolamentu eta bakardade handiko garaia. Honen guztiaren ostean arnas lekua izan dogu Iraultza Txikien Akanpada. Balio izan deusku aspaldi topetan ez genduzan lagunak egoteko, bai eta lagun barriak egiteko be.

Defendatzaileen etxea dan Basoan izan gara, Euskal Herria Babes Herria irudikatzen. Ez dogu

erasoen protokolorik martxan ipini behar izan eta Honduraseko gure Guapinoleko lagunei eta sufritzen dabizan egoera latzari

atxikitu gara. Hemendik euren egoerearen barri emotera dei egiten dogu.

Euskal Herriko herri mobimentu zatikatze prozesu batean dagoan honetan, saiakera bat egin dogu esparru guztietako jentea batzeako. Korrante politiko zein problematika guztietako militanteak batzeako. Ez dogu ehuneko ehunean lortu, baina pozik gagoz. Herri ekimenetan jarraitzeko go-goa eta indarra elikatu dogu.

Komunidade bat sortu dogu eta alkarbizitza eroan dogu aurrera, ondo biziten saiatuz. Urtean zehar hemendik kanpo doguzan burruketan jarraitzeko alkar motibau gara. Dana ez da ederto atera, baina horretan ibili gara, ikasten. Hurrengo edizino baten asmoa elikaturik bueltatzen gara etxera. Eskerrik asko hau guztiau posible egin dozuen guztioi. Biztu dogu sua.



LUMATUTEN



JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Bakunea zein
txertoa

Baten batek pentsau leike bakuna berbea gaztele-
ratik hartu dogula euske-
razko txerto eukita. Ba, ez, berba
biak daukie euren errazioa. Aiko.
Bakunea dala-eta, Edward Jen-
ner Ingalaterrako herri-medikua
zan eta XVIII. mendearen azke-
nerantz, mediku lanetan ebilela,
konturatu egin zan sakutadun
behiak erasten ebilzan andrak
kutsatu egiten zirala, baina im-
mune edo babestuta geratzen
zirala personen sakutaren kutsa-
duratik. Geroagora Louis Pasteur
zientzialari ospetsuak, latineko
"vacca"-ren eratorritik hartuta,
bakuna izena jarri eutsan, izan
be behien gatx baterik harako
aurkikuntza izan zalako. Gure
inguruan, bakuna izena zabal
ibili da, harik eta txerto nagusi-
tzen hasi arte, euskaldunagoa
dalakotan-edo. Txerto berbea be
latineko "inserto" aditzetik da-
tor, *insertar* gazteleraz eta txer-
tatu euskeraz eta, txerto, bere

sustantiboa. Beraz, berba biak
datoz latinetik eta erremedio
berbererako, hasikeran sakuta-
ren kontrarako eta gero beste
edozein gatx edo gaixotasun
saihesteko. Eta zergaitik azalpen
hau? Ba, gaztelerazko berba bat
euskeratu gura dogunean, bere
euskal baliokidea jartzen dogu,
baina txerto beste mailegu bat
da. Gainera, txerto berbeak
bakuna berbeak baino esangura
zabalagoa dauka. Landareak be
txertatu edo mentatu egiten dira,
eta ez bakunau. Horregaitik ba,
bakuna, bakunau, bakunazinoa
eta abar erabiltea ondo baino
hobeto dago eta ez euki eze-
lango konplejorik erabilteko er-
derakada okertzat hartuta. Ondo
etorriak izan daitezala berba biak
euskerara eta osasun bidera.
Era horretara berba biokaz abe-
rastu eta zehaztu egiten dogu
gure hiztegia. Aspaldiko partez,
COVID-19a dala-eta, ahobetea
darabilguz bakuna edo txerto
berbak. Bakunetea beharrezkoa
dogu eta badaragoiogu apurka-
apurka, baina gerora be jagon
egin behar dogu. "Gatxa, kintalka
etorri eta lumaka joan" dino esa-
kerek, baina artez jokutzen ba-
dogu danok, "denporeak ager-
tuko deusku edurra mendian".

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

BEGITUREN argazki lehiaketeta aurrera doa eta Eguzkiñe Rodriguez
billaroztarrak bialdutako argazkia dogu protagonistea hilabete
honetan. Udan Arratiako zeruan eguzkia ikustea fenomeno pa-
ranormala bihurtu dan arren, Eguzkiñek eta familiak lortu dabe bainu-
jantzia soinean jarri eta ugerlekuaz gozatzeko tarte bat topetea.
Abuztuari agur esan deusagun arren, oindino ez da berandue-
gi BEGITUKO Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Bialdu zuen udako
orotzapen onenak begitu@begitu.eus helbidera urri lehenengoaren
24a baino lehen.





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



begitu
eus



Olaetxe
OPTICA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Itsaso Bengoetxea: "Lege honek eskubide barri bat opatzen dau"

Itsaso Bengoetxea mediku igorreztarra Eutanasiaren Berme eta Ebaluazino Batzordeko buru izentau dabe. Berak zuzendutako batzordeak ebazten dau pazienteak legea beteten dauan eta prestazino hori jasoteko baldintzak beteten dituan.



Itsaso Bengoetxea.

Erredakzinoa

Zelangoa izan da postu barrian lur hartzea?

Postu barri bat da baina azkenean nik ez dot lanez aldatu. Nik Usansoloko ospitaleko zainketa aringarrietako arduradun moduan egiten dot lan eta bagilaren 25etik hona Euskadiko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazino Batzordeko burua naz. Baina hori aparteko beste gauza bat da. Azkenean, medikuontzat es-tadu mailako lege barri bat da. Gure egunerokotasunean ez gagoz ohituta holango gauzak eroaten, barria da danontzat. **Danontzako barria dala esan dozu, prestakuntza edo formakuntza duin bat izateko tarte nahikorik izan dozue?** Holango gauzetan denporea beti da eskasa. Martian onartu zan legea eta hiru hilabeteko epean indarrean sartzeako eskatu zan. Kontuan izanda pandemia luze honetan osasun langileok izan dogun pisua eta daroagun trotea, ez da momenturik onena izan holango lege bat martxan ipinteko. Gainera, bagilaren 25ean sartu zan indarrean. Justu opor eta uda aurretik. Baina tira, azken finean holango gauzetan ez zara egun batetik bestera hezten, etenbako formazinoa jaso behar dozu. Suposatzen dot

Herbehereetan eta Belgikan gertatu dan bezala, denporea pasau ahala, gero eta adituagoak izango garela. **Zein da zehazki batzordearen lan edo eginkizuna?** Espainian ezarri dan lege honen arabera, pazienteak eskaerea egiten dauanean mediku batek, mediku arduraduna izango danak eta prozesuan laguntzea emongo deutanak, oneretxia emon behar deuta. Honek oneretxia emoten deutanean, bigarren mediku batek, mediku aholkulariak, ebaluazinoa egingo deuta. Bi honeek baiezkoa emoten badabe, hirugarren oneretxi bat behar da. Oneretxi hori Berme eta Ebaluazino Batzordeak emoten dau. Horrezaz aparte, batzordearen eginkizuna medikuen arteko desadostasuna dagoanean, batek baiezkoa eta besteak ezezkoa emoten dauanean edo hasikeratik ezezkoa emoten badau, pazienteen erreklamazioak ebaztea be bada. Guk ebazten dogu pazienteak legea beteten dauan eta prestazino hori jasoteko aukerea daukan edo ez. **Orduan eutanasia onartzea ez da mediku baten erantzukizuna bakarrik. Profesional askoren artean banatzen da ardurea.** Bai, bai, guztiz. Are gehiago, hori izan da alkarte batzuetatik Espainiako legeak izan dauan

kritiketako bat. Batzuek esaten dabe, eta prensan agertu da oso "garantista" dala. Azken finean pazientearen ebaluazinoa mediku bik eta batzordeak egiten dabelako. Badagoz medio edo garantia asko paziente horrek legea beteten dauala ziurtatzeko. Eta ez hori bakarrik, behin prestazinoa emon ostean, eutanasia

Lege honek lehen onartuta ez egoan eskubide bat dakartzku. Egoera konkretu batean dagozan pazienteek lege barri honegaz ebatzi leikie, euren balioei jarraituta, euren bizitzak aurrera jarraitzeko duintasun nahikorik ez dabela eta bizi horregaz amaitu gura dabela

gauzatu ostean, Berme Batzordeak ebaluazino bat egin behar dau prozesu guztia ondo joan dan ebaluatzeko. Nahiz eta baimena emon eta dana ondo joan, behin prestazinoa egin ostean, batzordeak kasu guztiak aztertu behar ditu. Horregaitik esaten da Espainian lege hau oso garantistea dala. **Horrek ez dau zertan gauza txar bat izan behar.** Ez, ez. Guri, osasun langileoi, zentzu baten lasaitasuna emoten deusku. Izan be, ez da persona batek bakarrik esaten dauan gauza bat. Azken finean, ekintza arrera eroan ahal izateko 2, 3 edo 4 personaren oneretxia izan dau pazienteak. Izan daiteke administrazioan zenbat eta baldintza gehiago ipini, horrek oneretxi bat lortzeako gero eta denpora gehiago behar izatea eragiten dauala. Orduan, izan daiteke eskaerea egiten danetik baiezkoa jaso arte pasatzen dan denpora tartea, legeak ezartzen dauan denporea errespetata, izan daitekela 40 egunetakoa, agian, paziente askorentzat gehiegizkoa izan daiteke. Hor oreka hori dago. Garantistea da eta horrek eragin leike denporan luzatzea. **DHE Duintasunez Hiltzeko Eskubidea alkarteak jakinarazo eban eutanasiaren legea indarrean sartu zanetik, eskubide hori Osakidetzak aplikau ebala lehen aldiz, 86 urteko andra baten kasuan. Eskaera asko dozuez legea indarrean sartu danetik?** Kasuen inguruko informazioagaz tentuz ibili behar gara. Oso konfidentzialak izan behar dogu. Zenbatekoena, ze gaixotasun izan daben, oin arte izandako eskaerak zeren ingurukoak izan diran... holango informaziorik ezin dogu emon konfidentzialtasuna errespetatze aldera. Zuk aitatutako kasu hori publiko egin zan familiak publiko egin ebalako. Azken finean nik esan ahal deusudana da legea indarrean sartu bezain pronto eskaerak egon zirala. **Lege honek zer opatzen deus to eskatzaileari?** Lehen onartuta ez egoan eskubide bat. Egoera konkretu batean dagozan pazienteek lege barri honegaz ebatzi leikie, euren balioei jarraituta, euren bizitzak aurrera jarraitzeko duintasun nahikorik ez dabela eta bizi horregaz amaitu gura dabela, horretarako laguntza medikoa eskatuz. Azkenean, lege honek eskubide barri bat opatzen dau. **Eskubide barri hau beharrezkoa zan?** Nire eretxiz bai. Azken finean, urteak daroadaz heriotzearen

inguruan dagozan pazienteak ar-tatzen. Normalean hauskortasun edo gaixotasun egoera batean dagoan persona batek, nahiz eta gaixorik egon, heriotzea azken aukera moduan ikusten dau. Heriotzea ez da egoera horrentzat urtenbidea. Paziante batek esaten dauanean ez dauala bizi gura askotan horren atzean dagoana "ez dot holan bizi gura" da, "min honegaz" edo "gaixotasun honek eragiten deustan gauza honegaz". Hori arintzeko zainketa aringarriak dagoz. Baina egia da, badagozala pa-ziente batzuk zainketa horreek izan arren eskaerea egiten jarraitzen dabenak. Ez dabelako biziten jarraitu gura, nahiz eta zainketa egokiak jaso. Paziente horreen nahia bete ahal izateko hutsune hori betetera etorri da legea. Kritika asko egin jakoz lege hau martxan jartzeari Espainia mailan zaintza aringarrien bilakaerea ez dalako inguruko herrialde batzuetan egin dan bezainbestekoa izan. Pobretxoagoa da. Atzertuago gagoz. Orduan, hainbat alkarte medikotik argudiatzen dabena da zuk ez badozu zaintza aringarrien zerbitzu on bat edo arlo sozialean ez badozu ezinduta dagozan personak zaintzeako egitura egoki eta potentia eskuragarri, izan daitekela persona batzuek eutanasia eskatu gura izatea ez dabelako zerbitzu horreetara sarbiderik. Azkenean denporeak erakutsiko dau ia hori holan dan edo lege honek beste egitura biren potentiazino bat ekarriko dauan. **Zelan funtzionauko dau medikuen objektzino eskubideak?** Azkenean legeak medikuei be objektzino eskubidea aitortzen deutso. Medikuek erregistro baten izena emon behar dau eta izan daiteke –eutanasiaren– prozesuan parte hartu gura ez izatea bere pentsaereagaitik edo dana dalakoagaitik ez dagozalako ados prestazino horregaz. Batzuetan galdetu izan deustie ia EAEn mediku asko objektore izentau ete diran edo ze egoeratan gagozan. Printzipioz, guk ez dakigu zenbat objektore dagozan altan erregistro horretan, hori Osasun Sailak daroan kontu bat da-eta. Baina nik suposatzen dot, gauza barri guztiakaz gertatzen dan moduan, hasikeran batzuk objektore egingo dirala euren baloreen aurkako gauza bat dalako eta beste batzuk ziurbakotasunagaitik eta gauza barri baten aurrean gagozalako. Baina Osakidetzan egon da jentea prest agertu dana, norbere medikua objektorea bada, eurak izateko prozesua aurrera eroango dabenak.

ARTEA/BEDIA/LEMOA/ZEANURI

2021-2022 ikasturtean eskainiko dabezan ikastaroak jakitera emon dabez

Zeanuri, Lemoa, Bedia eta Arteako udalek hastear dagoan ikasturtean eskainiko dabezan ikastaroen zerrendea argitaratu dabe. Izena emoteko epeak urri lehenengoaren 9an, 13an, 17an eta 22an amaituko dira hurrenez hurrengo.

Erredakzinoa

Udaren bukaereagaz batera, Arratiako udalek 21-22 ikasturtean eskainiko dabezan tailer eta ikastaroen zerrendak argitaratzen hasi dira. Gaur-gaurkoz, Arte, Bedia, Lemoa eta Zeanuriko udalak izan dira urri lehenengotik aurrera ze ikastaro egongo diran argitaratu daben udalak.

Zeanurik kirol eta aisialdi eskaintza zabala izango dau. Kirolaren alorrean pilatesa, entrenamentu funtzionala, txikung-a, gimnasia eta hipopresiboak izango dira nagusi. Gainerako ikastaroen artean pintura, eskulan bidez sustatutako adinekoentzako adimen estimulazio ikastaroa, josteta tailerra eta adinekoei zuzendutako gimnasia egongo dira. Etxeko txikienentzat, aldiz, txikung eta jantza ikastaroak eskainiko ditu Udalak.

Lemoan lau ikastaro eskainiko dabez: bizirauteko jostintzea, birziklatu arte tailerra, lan bilaketa eta bizikletan ibiltzen ikastekoa. Izen-emotea urri lehenengoaren 6tik 13ra bitartean egongo da zabalik.

Bedian be adin tartearen arabera ikastaro desbardinak egongo dira eskuragarri. Helduentzat egur lanketea, yoga, pilates, korru jantzak, zumba, koroa, soinketa hipopresiboa, euskera ikastaroa, eskulanak eta mugiment-progra-

mea korrika eta luzapenak jarriko dabez martxan.

Umeei zuzendutako tailerren artean euskal jantzak, marrazketea, judoa, ingeleseko mintza praktikea eta gimnasia erritmikoa dagoz.

Azkenik, 60 urtetik gorakoei beren-beregi zuzendutako ikastaro bakarra mantenu soinketea izango da.

Aforoei jagokonez, koruan, euskal jantzetan eta gimnasia erritmikoan izan ezik, gainerako tailer guztietan gitxienez sei pertsona apuntatu beharko dira eta, gehienez, hamar.

Artean helduei zuzendutako ikastaroak adar bi nagusitan banatzen dira: kirola eta artea. Kirol eskaintzearen barruan pilates, yoga, zumba eta euskal jantza ikastaroak emongo dira. Artearen



esparruan, oster, eskulanak eta arte aplikadua.

Horrezaz gainera, hilean behin Roberto Aguado psikologoak Arteako guraso eskola dinamizauko dau eta hilaren azken barikuetan irakurlearen txokoa antolatuko dabe liburutegian. Irakurlearen txokoa nagusien eta umeen talde bana egongo da.

Umeei bideratutako eskaintzeagaz jarraituz, jantza modernoan eta euskal jantzetan izena emoteko aukera izango dabe Artean.

Non eta noz emon izena

Zeanuri eta Arteako ikastaroetan izena emoteko herri horreetako udaletxera jo beharko da.

Zeanurin urri lehenengoaren 9an amaituko da izena emoteko epea eta Udalak ohartarazo dau ikastaroren batean eskaintako plaza kopurua baino eskaera gehiago badago, zozketea egingo dala parte-hartzaileak nortzuk izango diran ebazteko.

Bediako ikastaroetarako izen-emotea urri lehenengoaren 7tik 17ra bitartean egongo da zabalik liburutegian 16:30etik 19:30era.

Arteako Udalak antolatutako ikastaroetan izen emotea urri lehenengoaren 22ra arte luzatuko da. Eskaera orri bat bete beharko da udaletxean.

Lemoako ikastaroen kasuan izena www.lemoa.net webgunean emon behar da.

LEMOA

Zornotzan jipoitutako gaztea ZIUtik plantara lekualdatu dabe

Gaztearen osasun egoerak kritikoa izaten jarraitzen dau. Gaur-gaurkoz, Ertzaintzak 15 persona atxilotu ditu erasoagaz lotuta.

Erredakzinoa

Garagarriaren 25ean Zornotzan jipoitu eben lemoaztarraren osasun egoerak kritikoa eta oso larria izaten jarraitzen dau. Gazteak koman jarraitzen dauan arren, ZIUtik plantara lekualdatu dabe. Erasotzaileek lesino larriak eragin eutsien garunean eta daborduko

hiru ebakuntza egin behar izan deutseez.

"Burmuinaren ezkerreko zatia sano kaltetuta eta berreskuratzeko aukera barik dauka. Eskoiko hemisferioaren berreskurapena, aldiz, bere gorputzaren arabera izango da. Gorputzak aguantatu eta birsortzen hasten bada, agian, esnatzeko aukerea izango dau",

adierazo dabe gaztearen senideek.

Bien bitartean, Segurtasun Sailak jakinarazo dau hamabost pertsona atxilotu dabezala erasoan parte hartu dabelakoan; horreetako zortzi adin txikikoak. Azken atxiloteketa abuztuaren 17an izan zan. Atxilotua erasoaren bideoa grabatu izana leporatu deusien 15 urteko gazte bat da.

ZEANURI

Zeanuriko Udalak lan anitzetako ofizial lanpostua atera dau

Lanpostuan interesauta dagozanak urri lehenengoaren 3ra arte emon ahalko dabe izena. Hautagaiek iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak izan beharko dabez.

Erredakzinoa

Zeanuriko Udalak lan anitzetarako ofizial moduan jarduteko lan eskaintza bat argitaratu dau. Eskaintzearen oinarrien arabera, hautagaiek urri lehenengoaren 3ko arrastiko 14:00etara arte izango dabe izena emoteko aukerea.

Halanda be, lan eskaintzan izena emon ahal izateko hainbat gaitasun barneratuta izatea beharko da. Tartean, iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak. Horrezaz gain, nahitaezkoa izango da eskola gradua, gidatzeko B2 baimena eta euskerazko lehen hizkuntza maila izatea.

Beharginaren aukeraketa prozesua oposizino bidezkoa izango da

eta hiru fasetan egongo da banatuta. Lehen fasean hautagaiek baztertzaila izango dan hogeitaz galdetako test bat osatu beharko dabe.

Lehen fasea gainditzen dabenek lanpostuaren profilari atxikitzen jakiezan ariketa praktikoak egin beharko dabez. Dana dan, bigarren froga honek ez ditu hautagaiek aukeraketa prozesutik kanporatuko.

Azkenik, euskera titulua aurkezten ez daben hautagaiek hizkuntza froga bat egin beharko dabe. Era horretan, kandidatuek eskatutako euskera maila dabela ziurtatu ahalko dau Zeanuriko Udalak.

Bestalde, hautagaien merituen be kontuan izango dira. Lanpostuari buruzko xehetasun gehiago abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dagoz eskuragarri.



BEDIA

Administrari posturako lehiaketeta deitu dau Udalak

Bediako Udalak oposizino bidezko administrari lanpostu baten lehiaketeta deitu dau. Interesatuak urri lehenengoaren 6ra arte emon ahalko dabe izena.

Erredakzinoa

Langile barriaren hautaketa prozesuak fase bi izango ditu: alde batetik, oposizino fasea eta, bestetik, lehiaketa fasea.

Lehenengoan, oposizino fasean, hautagaiek froga teoriko bat egin beharko dabe. Horren ostean, hautagaiek kasu praktiko baten ebazpena osotuko dabe

eta, azkenik, euskera azterketea egingo dabe.

Lehen fasea gainditu ostean, hautagaiek bigarrenari ekingo deusie. Lehiaketa fasean, interesatuak aurretiaz izandako lan esperientzia eta prestakuntza osagarria balorauko dira.

Lan eskaintzeari buruzko xehetasun gehiago Bediako Udaltzaren web orrialdean dagoz eskuragarri.

IGORRE

Igorreko Bonodendak beste 3.000 bonu kaleratuko ditu

Urri lehenengoaren 6tik urri bigarrenaren 31ra bitartean Igorreko Bonodenda kanpaina martxan ipiniko da barriz be. Oingoan, 16 urtetik beherako gazteek be bonuak eskuratu ahalko dabez.



Erredakzinoa

Aurreko edizinoko arrakastea ikusi ondoren, Arratiako Merkatarien Elkartek eta Igorreko Udalak bonu kopurua 1.800etik 3.000ra igotea ebatzi dabe. Igorreko alkatea dan Illart Gu-muziok uste dau ezohiko kanpaina hau "oso ondo" etorriko dala Igorreko etxeetan eta baita "komertzio eta ostalaritzean" be. Izan be, herritarrek 10 euro ordainduko dabez 15 euroko balioa daukien bonuen truke. Hortaz, bonuen erabilereagaz, konsumitzaileek %33 merkeago egin ahalko dabez erosketa eta konsumizinoak Igorreko establizimentuetan. Berezitasun bezala, oingoan 16 urte baino gitxiago dabezanen NANagaz be erosi ahalko dira bonuak. Aurreko edizinoan moduan, persona bakoitzak hiru bonu erosi ahalko ditu gehienez bere izenean. Gero, erosketak egiteko orduan, nahitaezkoa izango da bonuakaz batera NANA aurkeztea. Bestalde, kontuan izan behar da erosketa txartel bakoitzeko bonu bi erabili ahalko dirala

gehienera be, eta honeek erosketearen zenbatekoa bonuen balioa baino handiagoa danean bakarrik erabili ahalko dirala. Bonuak Igorreko Kultur Etxean egongo dira salgai astelehen, eguazten eta barikuetan goizeko 10:30etik 12:30era bitartean eta martitzen eta eguenetan arrastiko 18:00etatik 20:00etara. Bonuak urri bigarrenaren 31ra arte konsumidu ahalko dira baina urri bigarrenaren 6ra arte edo bonuak amaitu arte egongo dira salgai. Bonuen erosketa egiterako unean, txartel bidez ordaintzea lehenetsiko da. Halanda be, nonok eskudirutan ordaindu gura badau, aukera hori egongo da baldin eta dirua justu eroaten bada. **Eta igorrezarrak ez diranak, zer?** Arratiako gainerako herrietan erroldatuta dagozanak be Igorreko Bonodendak opatzen dituan deskontuez gozatu ahalko dabe. Dana dala, igorrezarrak izango dabe lehentasuna. Hori bermatzeko, igorrezarrak ez diranentzat bonuen salmentea geroago, urri lehenengoaren 13an, hasiko da.

ARTEA

Zea Mays eta Kantu Kolore izango dira Arteako kultur ekintzen kartelburuak

Urri lehenengorako programautako kultur ekintzen artean elektrotxarangea, kontzertuak eta Kantu Koloreren umeentzako ikuskizuna egongo dira.

Erredakzinoa

Urri lehenengorako ekitaldi kulturalak prestatu ditu Arteako Udalak. Antolatutako ikuskizunetatik azpimarragarrienak Zea Maysek eta Puro Relajok eskainiko dabezan kontzertuak eta umeei zuzendutako Kantu Kolore taldearen *Ametsen urtebetetzea* ikuskizuna dira Andra Marien bueltan egingo diranak. Kantu Koloreren ikuskizuna izango da, hain zuzen be, Arteako ekintza kulturaleri hasikerea emongo deusiena. Urri lehenengoaren 8an, eguaztenean, izango da hitzordua, Arteako plazan. Oingo honetan Kantu Kolore taldeak *Ametsen urtebetetzea* deitutako obra taularatuko dau. *Ametsen urtebetetzea* Kantu Kolorer euren kantuetako bi-deoklipak batuta sortu daben 50 minutuko ikuskizuna da. Hortaz, etxeko txikientzako ikusikizun musikal bat izango da. Musika eskaintzeagaz jarraituz, Zea Mays talde bilbotarra izango da kartelburu nagusia. Izan be, urri lehenengoaren 11n entzun ahalko dira *Atera* diskoko kantuak

Arteako plazan berbarako. Kontzertua 22:30ean hasiko da. Aiora Errenteriarren ahotsaz gain, beste talde batzuk be emongo dabez kontzertuak. Egitarauari begiratu ezker, Burrumba elektrotxarangea eta Apache taldea izango dira taularatzen lehenak. Izan be, urri lehenengoaren 10ean, barikuan, girotuko dabez Arteako kaleak. Burrumba elektrotxarangearen emonaldia 20:00etan hasiko da eta Apache taldearena, aldiz,

22:30ean. Biak izango dira plazan. Hurrengo egunean, arestian aitatutako Zea Mays izango da oholtzan, eta astegoiengaz amaitzeko, urri lehenengoaren 12an, 19:30ean, Puro Relajo taldearen kontzertua izango da plazan. Hurrengo astegoienean ostera Merkartera izango da, goizean merkadua egongo da eta arrastian Ein Go taldea eta Bitartean taldearen *Denak ez ziren indiano* ikusikizunaz gozatzeko aukerea izango da.



Zea Mays taldea.

LEMOA

Andra Mari Egunean klown ikuskizuna izango da Lemoan

Erredakzinoa

Aurten, Andra Mari Egunerako, urri lehenengoaren 8a, klown ikuskizuna antolatu dau Lemoako Udalak, Maite Guevararen *iQue buen día!* hain zuzen be. 18:30ean hasiko da eta Elizondoko Kulturguneko plazan izango da Pablo Ibarluzeak zuzendutako obrea. Aforoa mugatua izango da lekuak bete arte. **Sinopsia** Euria, edurra edo inetazia Martinentzat beti izan leiteke egun ona. Martina gaur etorriko da frogatzera amets egiten dauanak eta begiak ondo zabaltzen dituan aukera asko dituan mundu bat ikus daikela. Ondo pasetako gogoia daukan jentearentzako ikuskizuna da (ikusikizunera joateri itxi aspertuta dagozanak, tranpatiak, eta olge-



tako eta imajinetako gogorik bako personak). Ikuskizuna gazteleraz izango da.

ARRATIA

Neurriak arindu ditu LABiak

Erredakzinoa

Hilaren 1ean, indarrean sartutako neurriek instalazio eta lokalen gehieneko edukieraa %60ra igotea ahalbidetzen dabe, ostalaritzan izan ezik. Itxiera ordua 01:00etan mantenduko da. Joan dan asteleheneko bileran, Eusko Jauriaritzak COVID-19aren hedapena galarazoteko hartutako neurriak malgutu zituen. Aldaketa nagusien artean, gehieneko edukieraa %60ra igotea egon da. Halanda be, ostalaritzako gehieneko aforoak %50ean jarraitzen dau, baina, oin, mahaiko 6 lagun egon beharrean, 8 egon ahal dira. Gainera, barran konsumitzeak galarazota jarraitzen dau. Neurri honeek txokoei be aplikauko jakiez. Bestalde, gizarte, kultura edo kirol ekintzetan 600 persona batu ahalko dira barrukaldeetan eta 800 persona aire zabalean.

"Frantziako andrea", Arratian errotutako balada ederra

A photograph of a two-story building with a brick and stone facade, green shutters, and a covered entrance area. The building features a mix of red brick and light-colored stone masonry. The ground floor has a covered entrance with a wooden door and a small staircase leading up to it. The upper floor has several windows with green shutters and flower boxes. The building is surrounded by greenery, including trees and bushes.

Seguru ondo jakin arren, amak semeari preguntetan deuto nongoa dan emaztea. Semeak kanpoko dala erantzuten deuto, oso tonu gortesauan erabilitako epitetoetan (seme laztana, ama neurea...).

Onakiaue Herri Ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre
---	--



*Ez dot gura Prantzesik
ain gitxi erranik
esan dodan berbiaz
urten biar dot nik.*

Baladearen kaka dogu berau. Amak ez dau kanpotarrik semearentzat gura, areago, ez dau bape andrarrik gura. Horra hor semeak egin dauan "lege" hausturea, familiaren arau endogamikoa apurtzea. Horrek, ondorioz, ama eta semearen arteko intzestu sinbolikoan pentsarazoten deusku.

*Esan dozun berbiaz
urten biar bozu
-Urten bidera eta
il ein bear dozu.*

Konponbidea, beraz, andregaia
hiltea da, amak aginduta.

Ain de polite ba ze
nire emaztea
ez da posible ama
nik ori eitea.

Semeak ez dau hasikera baten amaren agindua bete gura. Bertan, gainera, datu interesgarri bat emoten deusku baladeak. Semeak "emazte" aitzaten dau, zer da ba? Emaztea ala emaztegaia? Bada, balada honek kontu hori argitu ez arren, beste aldaera batzuetan ikusi geinke daborduko ezkontuta dagozala, eta emaztea umedun datorrela. Bigarren ezkontza baten seinale dogu, berau eleizaz gainera, amaren oneretxia jaso guran.

*Zuk ezpozu posible
artu anajia,
anaje gaztea da
estudiantia.*

Semearen koldarkeriaren aurrean, amak anaiak estudianteari hilketea egin leikela iradokitzen dau. Sano irudi indartsua hau, estudianteari motibo ederra da, etxeko "segundon" hutsa dana, ezer galtzeako ez daukana eta diru apur baten truke edozer egiteko prest dagoana.

*Juanita jatsi zaite
zaldien ganetik
sartu daitzudan punalau
biotzen erditik.*

Zatz! onomatopeia entzun leite-
ke konsonanteen musikalidadean.
Semeak emaztea hiltzen dau. Beste
bersino batzuetan anaia da hiltzai-
lea. Eta ez bakarrik hil, "puñala" mo-

tibo sexuala be bada, beraz, hildeaz gain, seguru neskea bortxatu be bai.

*Ai orren punalorren
puntien zorrotza
ikusiez beste barik
ilten deust biotza.*

Bertan gertatzen dira bortxake-
tea eta hilketea.

*Zazpi zaldi deukodaz
izeraz jantzita
zortzigarrentxua barriz
perlaz estalita.*

Hil baino lehen, senarrak ez hiltako konbenziduten, negoziatzen ahalegintzen da emaztea.

*Orrez gainera dekot
urre-kalizia
urre-kalizia ta
sobrepelizia.*

*Arek emongotzudaz
iztiarren bizirik.
Arek neuretzat baina
ez itxi bizirik.*

Emazteak dakarzan diru eta opari guztiak eskaintzen deutsaz bizirik ixtearren. Alferrik baina, gainera hiltzaileak horreek guztiak kenduko, lapurtuko deutsaz.

*Kanpai bat entzuten dot
ez dakit nongoa
igual izango da
agoniekoa.*

*Zazpi izera dodaz
odolez mantxaurik
zortzigarrentxu onek
naroia ni mundutik.*

Atzenean, emazteak amore
emoten dau, ez dauka igesbiderik.

*Ai neure amaginarreba
muskerrez betia
subeak eingo al deustu
arratserak ohia.*

Hil aurretik baina, neskeak amaxea madarikatzen dau. Madarikazino horretatik mendekua eratorriko da. Hain zuzen be, gure inguru erdaretan balada honen izena *El romance de la mala suegra* gaztelaniar kulturari, eta *L'Écolier assassin* frantsesez da.

Euskerazko bersinoetan ez da mendekuaren arrastorik, baina, enparauetan Juanitaren nebea da arrebearen heriotzea mendekatu-tuko dauana.



MENDIA

Gorbeia igoerea antolatu dau Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak

Urri lehenengoaren 4an Gorbeia igoera kurutzera egingo daben igoereagaz jarduerak berreskuratuko dabez Areatzak Athletic-eko peñakoak.

Erredakzioa

09:00etan frontoetik aterako dira, eta 11:30-12:00ak inguruan hamaiketako egingo dabe kurutzera. 14:30ean omenaldia egingo deutsee hildako bazkideei, eta 15:00etan bazkaltzeko ordua izango dabe Pagomakurren, eguraldiak ixten badeutse behintzat. Bazkaria sagardotegiko menua izango da aurten be, Trikitxotx enpresek eroan eta zerbitzauko dauana. Izena emoteko mezua

bialdu behar da WhatsApp-etik Iker Zamakona (691 529 748) edo Jose Luis Aviles "Nino"ren (609 486 722) telefonora. Bazkariaren prezioa 10 eurokoa da bazkide helduentzat eta 5 eurokoa adinbakoentzat. Bazkide ez diranek bazkariaren zenbateko osoa ordaindu beharko dabe, 32 euro. Arrastian Bluegrass Sinners taldearen kontzertua izango da The Quiet Corner tabernan 20:00etan, igoera dala eta, peñako bazkide batek sustatutako jardueria.



PELOTEA

Aldairen garaipen bik Plazandreak irabaztea ahalbidetu eutsan Garciaren taldeari

Amaia Aldai dimoztarrak irabazitako partidu biri esker, Erlantz Garciaren taldeak 3-0 gairiditu eban Reyes Azkoitiaren taldea.

Erredakzioa

Abuztuaren 2an Zornotzan jokatu-tako finalean, Amaia Aldaik, Uxue Osese eta Leire Garaik lortu eben Plazandreak Txapelketako bigarren edizinoako txapelak janzea. Erlantz Garciak zuzendutako taldeak 3-0 itxi eban markagailua Azkoitiaren

nesken aurka. Finalaren inguruko balorazio positiboa egin dau Amaia Aldai pelotariak: "Finala uste genduana baino errazago irabazi genduan. Ez genduan inondik inora 3-0 irabaztea espero baina Garciaren estrategia ondo urten zan eta pozik gelditu ginan egindakoagaz".

HERRI KIROLAK

Ruth Linaza izan zan garaile Arabako Ingude eta Txinga Eroate Txapelketetan

Linazak minutu eta erdian 84 kolpe emonda bereganatu eban txapela ingudean, eta 14 plaza, 3/4 eta 6 metro eta 70 zentimetro egin ebazan 25 kiloko txingakaz esku banatan txapela lortuz txinga eroate txapelketan.

Erredakzioa

Garagarrilaren 31n jokatu ziran Arabako Txinga eta Zaku Eroate Txapelketak Laudion eta Ruth Linazak txapela jantzi eban txingetan eta bigarren postua lortu eban zakua eroaten. Zakua eroaten, 40 kiloko zakua aldean dala, 4 plaza egiteko 35 segundo eta 56 ehuneneko behar izan ebazan, Garbiñe Lopez de Uralde irabazleak baino segundo eskas bat gehiago.

Abuztuaren 8an osteria Gasteizko Campillo kiroldegian jokatu zan Arabako Ingude Txapelketan Ruth Linaza lemoaztarra suertatu zan garaile. Ingude txapelketan lehiatu ahal izateko jokalariek ahalik eta aldi gehienetan altuera jakin batera burdinezko ingude bat altxau behar dabe. Linazak soberan bete eban helburua, minutu eta erdiko denpora tartean 84 kolpe emotea lortu eban eta.

Lemoako herri kirolariarentzat ustekabea eta "sorpresa handiagaz" iritsi zan garaipena. Izan be, Linazak adierazo dau ez ebala espero, ingudea ez dalako bere

espezialidadea: "Nire asmo bakarra ahalik eta hobere egitea zan, txapela lortzeako asmo barik. Baina ondo atera zan".

Bigarren postua Esti Cidadek eskuratu eban. Azken bi urteetako txapeldunak eta faborito nagusiak Linazak baino 3 kolpe gitxiago emon ebazan, bere marka 81ean itxiz.

Bezperan, abuztuaren 7an, Arabako Lasto Altxatze eta Trontza Misto Txapelketak jokatu ziran Gasteizen. Hori horrela, Lasto Altxatze Txapelketan bigarren postua eskura-



Ruth Linaza txapelagaz.

oñatiarra izan eban bikotekide eta 5-12 irabazi eutsien Miren Larrarte-Arrate Bergara bikoteari. Partidu honetan be, arratiarraren sakeek protagonismo handia izan eben, bost tantu eskuratu zituan eta holan. Bigarren partidu hau askoz ikusgarriagoa eta parekatuagoa izan zan; lehia handiagagaz. Hori horrela, Aldai gusturago gelditu zan partidu honetan emondako jokogaz: "Bigarrenean, barriz, lehenengo jolastean baino hobeto sentidu nintzan eta uste dot maila hobeago bat erakutsi nebala".

Ordurako, txapela norentzat izango zan ebatzita egoan baina, halanda be, halanda be, kaiolako partidua jokatu zan. Bertan, Larrartek jokatu eban Azkoitiaren izenean baina, beste behin, Garciaren jokalaria zan Garai nagusitu jakon. Beraz, Garaik irabazi eban kaiolako norgehiagokea markagailua 6-12 itxiz eta Garciaren taldeari erabateko garaipena emonaz.

Txapelketa osoan zehar egin-dako ibilbideari atzera begira jarrita,

tu eban Linazak, minutu biko denbora tartean 19 jasoaldi egitea lortu ebazan eta. Garbiñe Lopez de Uralde lehiakideak, aldiz, denpora tarte berean 27 jasoaldi eginaz eskuratu eban txapela.

Trontzeari jagokonez, Linazak hirugarren postua eskuratu eban Juan Carlos Lopez Perez de Ornaizagaz batera.

Datozan erronkak

Une honetan Linaza ez dabil berehalako txapelketarik prestatzen. Halanda be, lasto altxetan entrenetan darrai. Izan be, Euskal Herriko Txapelketea antolatzen dabiz eta ordurako prest egon gurako leuke.

Lasto altxatzeaz gain, Badaioztaldea gaz sokatiran entrenetan dihardu lemoaztarrak; herri kirol anitzetan jarduten dabenean helburu ohikoena sokatirako mundu mailako txapelketarako sailkatzea da eta.

COVID-19ak herrietako plaza guztiak itxi zituan arren, apurka-apurka mobimentua berreskuratzen dabizala azaldu dau Linazak. Hori holan, plaza itxietan, aforo mugatuagaz bada be, erakustaldiak egiten dabil Badaiozt sokatira taldea entrenamentuetarako autofinantzaketa lortzeako.

Aldaik txapelketa irabazteagaitik "oso pozik" dagoala adierazo dau txapelketa "berezia eta desbardi-na" izan dalako. Arratiarrak badaki Plazandreak-ek ikusgarritasun berezia emoten deusala andrazkoen eskupeleoteari. Hortaz, finalean egote hutsa "oso garrantzitsua" dala adierazo eban.

Osasun neurriek erabat baldintzatu eben txapelketea. Izan be, Aldai finala baino egun batzuk lehenago konfinauta egon behar izan zan. Halanda be, txapelketeak aurrera jarraitzea lortu eban eta azkenik 245 persona batu ziran Zornotzako pelotalekuan jokatu-tako finalean.



ESKALADEA

Olinpiaden ostean, eskaladeagazko interesa be horman gora doa

Oin dala hiru aste amaitu ziran Olinpiar Jokoetan oihartzun berezia izan dau eskaladeak. Hasteko, Olinpiadetan estreinakoz jokatu dan kirol bat izan dalako eta, bigarrenik, Alberto Ginés extremadurarrak eroan daualako urrea etxera.



Erredakzinoa

Olinpiadek eskaladeari zeozer emon baldin badeutsie ikusgarritasuna izan da. Izan be, abuztuaren 3tik 6ra bitartean jokaturako probek ikuskizun kutsu handia izan eben, abiadura probeak batetik bat. Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak uste dau "oso positiboa" izan dala eskaladea Olinpiar Jokoetan txertatzea: "Jente askok ezetuko dauan kirol bat izango da. Mailan be piloa eboluzionauko dau eta hortik aparte gehiago inbertiduko da". Japonian ospatutako jokoetan eskaladan ohikoak diran hiru modalidadeek —boulderrak, zailtasunak eta abiadureak— bat egin eben eta hiru disziplinetan lortutako puntuazioaren batz bestekoagaz ebatzi zan podiumeko sailkapena. Hobeto uler daiten, Zabalak azaldu dau hiru modalidadeen baturea atletismoan "hesiak, esprinta eta maratonia" alkatzea bezalakoa izan dala. Horregaitik, ebatzi honek "nahiko konfliktu" eragin dauala aitortu dau. Izan be, hiru modalidadeek horman gora igotea helburu daukien arren, desbardintasun handiak dagoz batetik bestera. Modalidade barriena abiadura da. Proba honen kokoa ahalik eta denpora tarte txikienean horma ahalik eta goren igotean datza.

Modalidade hau da Zabalak ohiko eskaladeagaz gitxien erlazionatzen dauana: "Azkenean, beti da horma bera. Zein ahalik eta arinen igon behar dan". Modalidade honetan jarduten daben kirolarien gorputzak eta entrenamenduak "oso oso desbardinak" dirala deritza Zabalak. Zailtasunean, aldiz, eskalatzaileek soka baten laguntzeagaz egin behar dabe horman gora. Lurretik distantzia handiena eskuratzen dauanak irabazten dau kategoria horretan. Bukatzeko, boulderra dago, non zailtasuna oso konprimiduta dagoan. Izan be, erresistentzia baino indar handiagoa exijiduten dau eta bide posibleen irakurketea nahiko konplejua da. Euskal Herrian eskaladeagazko afizino dezente dagoan arren, instalazioak falta dira. Alberto Ginés urrezko dominaren irabazleak bere garaipena "mirari" bat konsiderau eban Espainia mailan ez dago eta maila olinpikorako entrenetako moduko azpiegiturarik. "Hemen ez da asko inbertiduten instalazioetan. Ez dago beste herrialde batzuetako laguntzarik. Egia da oso oso atzeratuta gagozala zentzu horretan baina Olinpiadei esker nik uste dana aldatuko dala eta alde horretatik eboluzionauko dauala", bat egin dau Zabalak Ginésegaz. Zabalari atzamarren artetik iges

egin eutsan Olinpiadetara sailkatzeko txartelak. Japoniarako hegaldiak erosita zituan jada, baina bizepseko haustura baten ondorioz uko egin behar izan eutsan plazeari. "Preolinpikora joateko bi aste falta zirala gorputzak ezetz esan eustan. Hor ez da txarto hartu nebala, nahiko ondo hartu neban eta gogotsu nengoan", gogoratu dau eskalatzaileak.

Fokua harrian

Horren ostean, txapelketak alde batera itxi eta harrian ipini eban fokua Zabalak. Izan be, bizepseko lesinoaren ostean itxialdia heldu zan eta bai forma, bai entrenamentu eta txapelketetarako motibazioa galdu ebazan dimoztarrak: "Ez neban nire burua horretarako oso motibauta ikusten eta motibazioak bultzatzen dauan kirolari bat naz. Orduan, ez dakidanez motibazio barik funtzionetan, pentsau neban motibetan ninduan zeozer topau behar nebala barriro gupil horretan sartzeako. Harriak emon deusta azken aldi honetan behar neban haize hori".

Oin, urte amaieran argitaratuko dan proiektu batean dabil murgilduta Zabala baina, batez be, harrian eta mendian.

Afizinoa handitzearen beste alde

Eskaladeak afizino gehiago lortzea eta azken asteetan lortu dauan indarra "kriston positibo" dala deritza Zabalak. Halanda be, eskaladearen filosofia erabat barneratuta ez daben kirolarien etorrerak baditu bere alde txarrak be, guztietatik okerrera ingurumengazko errespetu faltea izanik: "Hau ez da gimnasio bat. Beste filosofia bat daukan kirola da eskaladea. Bakotxak izan dagiala gura dauan filosofia, baina bai ingurumena, bai ingurua errespetatuz". Hori horrela, Zabalak salatu dau afizionau askok ez dabela materiala behar bezala zaintzen eta EAEko eskalada federaziotik hainbat mosketoi aldatu behar izan dabezala erabilera okerragaitik. Horrezaz gainera, nork bere materiala erabilteko, zaintzeako, musikarik ez jartzeko, gauzak bartzeko eta hormak eskalau bitartean zaratarik ez egiteko eskaerea luzatu dau Zabalak.

TRINKETEA

Ziarrustak eta Ducassouk Kanboko Trinkete Torneoa irabazi eben

Ekhi Ziarrustak eta Baptiste Ducassouk osotutako bikotea 40-27 gailendu jakien markagailuan Ospital eta Lanberteri.

Erredakzinoa

40-27 irabazi eben joan dan abuztuaren 9an Kanboko Trinkete Torneoa Ekhi Ziarrusta eta Baptiste Ducassouk. Emaizak kontrakoa iradoki daiken arren, partidu luze, gogor eta lehiakorra izan zan finalekoa. Ekhi Ziarrusta trinketelariak esan eban berak eta itsasuarrek "atzetik hasita" eskuratu ebela garaipena. Izan be, aurrez aurrekoaren hasieran tantuak banan-banan lortu ebezan bikote biek. Hori holan, partiduaren erdira heldutakoan

Ziarrusta eta Ducassou atzetik ebitzan, 21-25. Gerora, azken tantuetan, Ziarrustak azaldu eban Ducassouk partiduaren erritmoa bizkortu ebala eta Ospital eta Lanbertek osotutako bikoteak zailtasun gehiago izan zituala itsasuarren erritmoari eusteko. Markagailua horren espilu izan zan eta azkenean 13 tantuko aldeagaz eskuratu eben garaipena Ziarrustak eta Ducassouk. Txapela soinean urten zan Ziarrusta Kanbotik, aste batzuetan deskantsatzeko gogoakaz.



FUTBOLA

Futbol ligea hasiko dau hileon Arratiak

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 5ean, arrastiko 19:00etan, jokaturako dau Arratia futbol taldeak ligako lehen partidua Nueva Montaña Kantabriako taldearen kontra etxetik kanpo. Liga nazionaleko lehenengo mailako bigarren taldean lehiatuko dira aurten be Arratiako neskak, igaz jardunaldi biren faltan mailaz ez bajatutea lortu eta gero. Abuztuan June Ramos eta Patricia Alvarez jokalaria kaz egon zan BEGITU eta Arratia taldearen gorabeheretaz egin eben berba, igazko urtea, denporaldiaurrea eta abar. "Pasa dan urtetik hona gauza asko hobetu doguz, plangintzea be aldatu egin dogu eta sistemea be barneratu dogu,

orduan uste dot aurten gauzak errazago urtengo dirala", adierazo eban Alvarezek. "Jokalaria barri bi dagoz, bat Alaine da, Berrizetik dator eta Eibar B taldean jokatu dau, bestea June Uriarte da, Arratian jokaturakoa da baina ointxe pare bat urte Bizkerre taldera joan zan eta oin bueltau egin da" gehitu eban osterako Ramosek. Jokalariak uste dabe igazkoa baino gogorragoa izango dala ligea, Athletic de Bilbao C eta Osasuna eta Real Sociedad klubaren bigarren taldeak dagoz talde berean eta, baina taularen erdikaldean ibiltea espero dabe. Arratia taldeko gizonezkoen A taldeak osterako urri lehenengoaren hirugarren astegoienean hasiko dau ligea.

UDA KULTURALA

Uda Kulturalako hurrengo jarduerak Igorren urri lehenengoaren 3an

Erredakzioa

Antzerkiek, kontzertuek, bertsoek eta abarrek osatu dabe Igorreko Udarak udarako prestatutako eskaintza kulturala. Urri lehenengoaren 3an garagarrean eguraldiagaitik egin barik gelditu zan Harria Herria jantza bertikal ikuskizuna egongo da, saioa udaletxe ondoko frontoian egingo da eguraldi ona bada 22:15ean.

Ikuskizunerako konbitea www.igorrrekultura.blogspot.com helbidean hartu behar da aldeaz aurretik. Igorren erroldatuek izango dabe lehentasuna.

Harrobi Dantza Bertikala konpainiak, Oreka TX-en musikeagaz, eraikuntza baten eskegita egingo dau jantzan. Artelan eder eta harrigarri hau izango da Uda Kulturalako programazinoko azkenurrena.



EUSKEREAK

Hilaren 1ean zabaltzen da ikasturte barrirako izen emotea AEK-ko Kubulu Euskaltegian

Erredakzioa

Igaz lez, klaseak presentzialak izango dirala aurreikusten dabela, azaldu dabe Kubulu Euskaltegiko irakasleek. Maila guztietako ikastaroak eta ordutegi zabalak izango dabez. Izen emotea urri lehenengoaren 1ean zabalduko da, eta Kubulu Euskaltegian bertan egin daiteke, telefonoz 94 631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetan eta arratia@ae.eus helbide elektronikoan.



UDAKO EKINTZAK

Idoia Asurmendiren kontzertuak Areatzan eta Ubiden

Idoia taldeagaz emongo dauan kontzertua izango da Kallean gora kallean behera izenpean, egingo dan atzen jarduerak Areatzan, Ubiden osterak jaietan emon ez eban kontzertua emongo dau.

Erredakzioa

Antzerkia, zinea, musika eta jantza bertikala egon dira garagarria eta abuztuan Areatzan. Musikeak hartu dau pisurik handiena; izan be, Ama lur izeneko musika zikloan hiru kontzertu egin dira ekimen honen barruan. Ama lur zikloak musikari andrazkoak emondako lau musika kontzertu batzean ditu, atzena urri lehenengoaren 3ko Idoia Asurmendiren kontzertua izango da, bainuetxe parkean izango dana 21:30ean. Ubiden, hilaren 5ean emongo dau kontzertua, 18:00etan, plazan.

Idoia Asurmendi Aramaion 2000. urtean jaiotako abeslari gaztea da. Txikitatik musikari lotuta egon dan

neska honek 2020an banda bat sortzea ebatzi eban eta 2021eko aprilean argitaratu eban bere lehen diskoa, *Ilun eta abar* izenekoa. Jazzaldian, Donostia Festibalean eta beste hainbat lekutan kontzertuak emote-

ko aukerea izan dau, artean diskorik argitaratu barik eukan arren.

Areatzako kontzertua ikusteko izena Areatza Urtaroka webgunean edo udaletxean 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.



Idoia Asurmendi.

MOTORRAK

Hilaren 4an motorren zaratotsakaz beteko ditu kaleak Arratia Motor Taldeak

100 motorzale batuko dira, gehienez, Arratia Motor Taldeak antolatutako topaketan.

Erredakzioa

Motorzaleek motor ibilaldiaz, parrilladaz eta Suger taldearen kontzertuaz gozatuko dabe.

Urri lehenengoaren 4an, zapa-tuan, hitzordu berezia izango dabe Arratiako motorzaleek. Izan be, Arratia Motor Taldeak zaleen arteko topaketea antolatu dau Igorren.

Goizean, ibilaldi bat egingo dabe Arratiako bailaratik zehar. Eguerdian parrillada eta bazkalondan Suger taldearen doinuek girotuko dabe motorzaleen topaketea.

Motor taldeko kideak 10:00etan alkatuko dira Igorreko Kultur Etxearen aurrean. Bertatik abiatuta Arratiako herrietatik zehar ibilaldi bat egingo dabe, motor gainean,

zela ez. Gero, 12:00etan, geldialdia egingo dabe Dimako Baltzola jatetxean pintxo-potea egiteko.

Dimako geldialdiaren ostean, Igorrerantz itzuliko dira eta bertan parrillada bidezko bazkariari ekingo deusie. Parrilladea Igorreko Kiñu Gaztetxearen lorategian izango da, aire zabalean. Bazkalondoa girotze-ko Dimako Suger taldeak kontzertua eskainiko dau Gaztetxean.

Pasa dan urtean ez bezala, aurtentopaketea antolatzea lortu daben arren, sano desbardina izango da aurreko edizinoakaz konparauz. Osasun neurriak bete beharko dira eta gehienez 100 motorzalek hartu ahalko dabe parte.

Arratia Motor Taldeko kidea dan Manu Salvadorrek azpimarratu dau ez dala "egin gurako geunken kontzentrazioa" baina COVID-19aren aurkako neurriakaitik aforo murriztua mantentidu beharko dabela.

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elxalde 10, Igorre
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@ae.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritza Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

Anari kartelburu dala bueltauko da Lemoakustik Fest

2020ko geldialdiaren ostean, musika akustiko jaialdiak barriz girotuko ditu Lemoako kaleak. Izkan-der Fernandezek, festibalaren antolatzaile eta sortzaileetako batek, azaldu dau 2020ko edizinoan ber-



"Lemoara hurbiltzen diranek formatu gozoa daukan kalidazeko zuzeneko musikea eta lemoaztarren izaera parte-hartzailea topauko dabez", aurreratu dau Fernandezek. Bere aldetik, alkateak gaineratu dau musikea eta kulturea "sendagai onak" dirala "pandemia honek itxi dauzan zaurietako batzuk sendatzeko".

Horretan gabiz, orokorrean, Arratian. Eta horri helduko deusagu Lemoan irailaren 10ean eta 11n ospatuko dan Lemoa Kustik Fest jaialdiaren bueltan. Musika murtuari duintasuna eskainiko deusagu eta publikoari zuzenean kalidadezko musikea dastatzeko aukerea emongo deusagu. Kartel bikain-bikaina dogu: gaur egungo euskal eszenaren harribitxi batzukaz (Sara Zozaya, Ene-ritz Furiak eta Abereh) eta azken hamarkadetako gure klasiko erraldioenagaz (Anari). Lemoa eta lemoaztarren izaera parte-hartzailea eta musikari zor deusagun maitasuna zentroan kokatuko dogu. Kotxepin Kultur Etxeko lorategia musikearen koloreagaz estaliko dogu egun bitan. Etorri zaitez. Geurea indartu. Musikea indartu.

The banner is a wide, horizontal advertisement. At the top, a blue header bar contains contact details for 'LEMOA' and 'BASAURI' on the left, the 'ALKIZABAL' logo in the center, and 'BASAURI' contact details on the right. Below the header, the text 'MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA' is centered in a large, white, sans-serif font. The main body of the banner features two large, grey industrial generators. The generator on the left is shown from a side profile, while the one on the right is shown from a front-three-quarter view. A stylized lightning bolt graphic is positioned behind the generator on the right. In the bottom right corner, there is a white box containing the 'filippini GENERATING SETS' logo. Along the bottom edge, a row of logos for various partner brands is displayed: filippini, Nilfisk, JCB, MANITOU, GTX CONTAINEX, TeknoDiyakrika, HiKOKI, POWER PRODUCT GENERGY, MASTER, and INSTANT UPRIGHT.

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Parketxeak antolatuta haginena bila. Ekintza autogidatua Arimekortako larreetan dagozan zuzatze bereziak ezetuteko. Bisitea antolatze informazioa Parketxean jaso behar da.

ARRATIA

AEK. Izen emotea urri lehenengoaren 1ean zabalduko da. Igorreko Kubulu Euskaltegia bertan egin daiteke, telefonoz 94 631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetan eta arratia@aek.eus helbide elektronikoan.

ARTEA

Hilaren 22ra arte Udalak antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxetik pasatu behar da eskaera orria betetera. Ikastaroak: *Pilates, Yoga, Zumba, Dantza modernoa umeak, Hirugarren adineko gimnasia, Euskal dantza umeak, Euskal dantza nagusiak, Eskulanak* eta *Arte aplikatuak*.

BEDIA

Urri lehenengoaren 17ra arte, Udan be irakurten. Bialdu argazki bat irakurten liburutegia@bedia.biz helbidera edo 636 325 578 WhatsAppera, "Udan be irakurten" esaldiagaz, izen-abizenak, argazkia noz eta non eginda dagoan eta argazkian agertzen dan liburua ea gomendatzeko dan esanez.

Administrari lanposturako lehiaketea atera dau Udalak. Interesatuak urri lehenengoaren 6ra arte eman ahalko dabe izena.

DIMA

Arratiako Ume-Gazteen 1. Argazki eta Bideoen Lehiaketea. Arratiako 18 urtetik beherakoentzako. Hilaren 15era arte luzatu da euskal mitologia eta ekologiaren inguruko erretratu eta bideoak bidaltzeko epea. Antolatzaileak: Dimako Guraso Elkartea, Txumiluxueta eta Herri Ikastetxea. Parte-hartzaileak bakotzak Mb bateko erretratu eta gehienez, minutu biko bideo bana bialdu ahal dau jentilakdiman@gmail.com helbide elektronikora. Hurrengo datuak be agertu behar dira: Izen-abizenak, kontakturako telefonoa, herria eta adina.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kulturunean. Liburuak hartu, eskatu eta bertan irakurteko aukerea dago.

ZEANURI

Zeanuriko Udalak lan anitzetako ofizial lanpostua atera dau. Izena hilaren 3ko 14:00ak arte emon daiteke. Hautagaiek iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak izan beharko dabez. Xehetasun gehiago abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dagoz eskuragarri.

Hilaren 9ra arte, Udalak eratutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik udaletxean. Plaza mugatuak dagozan ikastaroetan kopurua gainditu ezker zozketea egingo da. *Pilates, Entrenamentu funtzionala, Txikung eta arreta efizientea umeentzat, Txikung, Gimnasia, Hipropesiboak (Mazala), Umeen dantza, Pintura, Eskulanak adinekoentzat, Josten eta Adinekoentzat gimnasia.*

ZEBERIO

Zeberioko II. Argazki Lehiaketea. Ura

eta egurra gai nagusi moduan hartzean dabezan argazki horizontalak, ez panoramikoak www.zeberio.net gunera igon edo info.zeberio@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Gai bakotxean boto gehien jasoten dauzan argazkilariak bi personentzako bazkaria jasoko dau sari lez.

Moncayo, 2.314 metro, eta Campiña, 2.049 metro, mendiak igoteko aukerea zabaldu dau Austarri Mendi Taldeak. Urtekerea urri lehenengoaren 18 eta 19an izango da. Parte hartzeako izena emon behar da mendi taldearen lokalean barikuetan 20:00etatik 21:00etara, telefonoz (665 735 054) edo austarrimenditaldea@gmail.com helbidean hilaren 11ra arte.

URRI LEHENENGOAK 2
IGORRE

19:00etan, Arratiko Zekorrak errugbi taldeak

Asisko Urmeneta


Azken liburuen aurkezpena



Irailak 2, eguna

Abaroan

19.00



Asisko Urmenetak bere azken komiki biak aurkeztuko ditu

Sugarraren mende eta *Basolatik berri onik ez* komikiak aurkeztuko ditu Asisko Urmeneta ilustratzaileak Diman. Lanek Erdi Aroan eleizeak aurrera eroandako Inkisizinoak eta Orbaitzetako Olako burdin gorietako gorabeherak dabez ardatz, hurrenez hurrengo.

Aurkezpen ekitaldia urri lehenengoaren 2an, egunean, izango da Dimako Abaroa Aretoan. Hitzordua arrastiko 19:00etan hasiko da eta nahitaezkoa izango da joan aurretik kultura.dima@bizkaia.org helbidean izena emotea.

entrenamentuak hasiko ditu San Txisme zelaian. 18 urte euki ezker errugbira jokatzu berau deskubriduteko aukerea.

URRI LEHENENGOAK 3
AREATZA

21:30ean, Idoia Asurmendiren kontzertua bainuetxeko parkean Kallean gora kallean behera programazioaren barruan. Izena Areatza Urtarokaren webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.

IGORRE

22:15ean, Uda Kulturalaren barruan *Harria Herria* jantza bertikal ikuskizuna udaletxe ondoko frontoian. Eguraldi txarra egin ezker bertan behera geldituko da. Konbiteak www.igorrekultura.blogspot.com helbidean eskatu behar dira.

URRI LEHENENGOAK 4
AREATZA

09:00etan, urtekerea frontoitik. Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta Gorbeaira igoera. 11:30-12:00 inguruan hamaiketako kurutzan; 14:30ean, omenaldia hildako bazkideei; 15:00etan, bazkaria Pagomakurren, eguraldiak lagundu ezker, ostean Areatzan.

20:00etan, Bluegrass Sinners taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

Arratia Motor Taldeak antolatutako topaketea. 10:00etan, Kultur Etxean. Hortik abiatuta ibilaldia Arratititik. 12:00etan, geldialdia Baltzola jatetxean pintxo-potea egiteko; eguerdian, bazkaria Kiñu Gaztetxeko lorategian eta arrastian Suger taldearen kontzertua. 100 motorzalek hartu ahal izango dabe parte.

URRI LEHENENGOAK 5
AREATZA

18:00etan, Idoiaren kontzertua plazan.

URRI LEHENENGOAK 6
BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, ikasturte hasikerea, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

17:00etatik 19:30era, ludotekea zabalik, ikasturte hasikerea, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

IGORRE

Urri bigarrenaren 31ra bitartean Bonodenda kanpaina martxan. AMEk eta Igorreko Udalak bonu kopurua 1.800etik 3.000ra igon dabe. 16 urtetik beherakoak be bonuak eskuratu ahal izango dabez.

LEMOA

Udalak eratutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik hilaren 13ra arte. Izena www.lemoa.net webgunean emon behar da. Ikastaroak: *Bizirauteko*

jostintza, Birziklatu arte tailerra, Lan bilaketa eta *Bizikletan ibiltzen ikasi*.

URRI LEHENENGOAK 7
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 17ra arte, Udalak eratutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Liburutegian. Ikastaro bakotxean gitxieneko taldea osatu behar da aurrera egiteko. *Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru dantzak, Korroa, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipropesiboa, Ingelesa: mintza praktika, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Judo, Eskulanak, Gimnasia erritmikoa* eta *Mantenu-soinketa*.

Bediako ondarea ezetuteko hilaren 18an egingo dan urtekeran izena emoteko epea zabalik hilaren 15era arte. "Altxorren bila" jolasaren bidez, modu didaktiko eta ludikoan Bediako ondare historiko eta arkitektonikoa ezetuko dabe bertaratutakoek.

URRI LEHENENGOAK 8
ARTEA

18:30ean, *Ametsen urtebetetzea* Kantu Kolore-ren ikuskizun musikala. Plazan.

LEMOA

18:30ean, Maite Guevararen *¡Qué buen día!* clown ikuskizuna. Andra Mari Eguna. Elizondoko Kulturguneko plazan. Aforo mugatua. Tokiak bete arte.

URRI LEHENENGOAK 10
ARTEA

20:00etan, Burrunba elektrotzaranga; 22:30ean, Apache taldea. Plazan.

URRI LEHENENGOAK 11
AREATZA/UBIDE

Mendi ibilbidea: Ubidetik Oketa mendira igon arrasti iluntzeko basoko soinuez gozatzu. Izena Areatzako Parketxeko 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean emon.

20:00etan, Gorrondatxe taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

22:30ean, Zea Mays taldea. Plazan.

URRI LEHENENGOAK 12
ARTEA

19:30ean, Puro Relajo taldearen kontzertua. Plazan.

URRI LEHENENGOAK 13
BEDIA

Masaje geriatrikoa. Hitzordua hartzeako liburutegira deitu behar da astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era.

IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN!

Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BEGIRALEAK BEHAR DIRA
 Guraso Elkarateak zaintza lanak egiteko begiraleak behar ditu 2021/2022 ikasturtean. Bialdu curriculuma, ampalemoa@gmail.com helbidera.

MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
 Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako laguntzat). Telefonoa: 635 750 097.

LANA SALTZEAN DOT
 Ohe artikulaua salgai, urritasunen bat daukan personentzat aproposa. Telefonoa 657 777 542.

LAN EGITEKO PREST
 Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkerro deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
 Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50

euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LAN BILA
 Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neskame edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

SALTZEAN DOT
 Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio sano onean. Altuerea 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

BEGITUREN kamiseta bana.

Kepa Perez Urraza (Zeberio)
 Ziortza Etxebarria (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean
 meda

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmeda@hotmail.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA

Boko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

BIZARGINAK
 Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta buzkunduen dogu.
 Telf. 94 607 78 33

Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis
 Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a
 Igorre 48140 Bizkaia

Tlf: 94-673-70-87
 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATEETXEA

Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com

Telf.: 94 631 52 83

Dia %
 PEDRO
 AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Telf. 94 631 15 26

Pinturas Aratia

Javi Morato

Telf. 628 443 992

ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK

AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA


DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxes 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. beheak • Igorre (Bizkaia)



BUELTAN GAGOZ!

Bazkide egiteko aukerea
Bazkidea: 25€/hilero - Bazkide familiarra: 40€/hilero



BABAJANA

BABA GORRIAK
SAKRAMENTUAKAZ

(Urdaia, odolostea, txorizoa, saiheskia, azea eta piparrak)
ETXEKO ARROZ-ESNEA

Erreserbapean
Etxeko ura eta ardaoa barne (botila 1 lau personako)
16.90€ (BEZ barne) gitxienez 6 lagun
94 657 27 05 - info@hotelbalnearioareatza.com

